

itsasond^{2.0}

Herriko aldizkaria (((1. zk))) apirila-ekaina 2008

Kaxintane, Itsasondoko taberna berria ireki da

Inauteriak 2008 Aitor Esnaola (aht) Lehiaketa mundiala

Itsasondotar agurgarriak,

Lehehenengo alea kalean dugula, bigarren edizio hau ausnarketa batekin hastera merezi zuen noski, eta zuzenak izango gara esan beharreko guztiarekin, bestalde oporrak izan direla eta ale honen berandutzeagatik barkamena eskatu behar dizuegu.

Esan genuen, proiektu hau hasi behar genuen garaian ezinezkoa litzagukela honelako lan batean sartzea zuen guztion lankidetzaz jaso gabe; ezinbestekoa da ikustea herritarrok parte hartzen dezutela. Horretarako bideak jarri genituen eta baita lehiaketaz erraz bat denok idatzi zenezaten eta afari eder bat irabazteko aukera eskaini ere.

Ez dakigu nondik hasi ausnarketa, ez dakigu non egin dugun akatsa, non dauden trabak herria dinamikoa bilakatu dadin, baina badakigu nondik hasi komunikazioaren proiektua aurrera eramateko. Ez dugu gauza haundirik eskatzen zuen lankidetzaz baino ez. Zuen iritzia kontutan hartu nahi ditugu, zuen kezka entzun nahi ditugu eta zuen berriak zabaldu.

Itsasondo2.0@itsasondo.net. Hau da gure helbidea eta gogoratzen dizuegu buzoi bat jarrita deztela zuen idazkiak bidaltzeko.

Beno, gauza positiboak ere aipatu behar dira honen inguruan, jendeak irakurri duela jakin badakigu eta gustatu ziola esan digu, beraz, gure lehen helburua behintzat beteta dagoela uste dugu. Denak ez dira penak izango, ezta?

Bigarren alde positiboa bilatzen jarri gara eta ara non bigarren alea kalean egotea ere positibotzat joenezake, erreza badirudi ere lan dexente baitarama honelako proiektu bat burutzeak.

Eta azkenik, positibotzat jo dezakegu, halaber, herritarrek laguntza emateko prest agertu direla, talde ezberdinen arteko elkarlanak ahal bidetuta. Kultura arloko atalean emango dugu berri.

Bestealde, serio jarri behar gara berriro ere ekaitza Euskal Herrira itzuli delako. Inoiz baino indar gehiagorekin eta bere errepresio bide guztiak erabiliaz gure hitza isilarazteko, gure etorkizun sozial eta politikoa suntsiarazteko. Berriro ere herritarrok erakutsi beharko dugu ez dagoela etsai haundirik euskaldun garenentzako eta gure etorkizuna guk erai-kiko dugula, gure eskuetan baitago gure independentziaren bidea.

Bigarren ale honetan erreportai berezi bat eskei-niko dizuegu ELKARLANA izenpean sortu den etapa baten berri emateko, noiz sortu, nola sortu eta nora eramango gaituen azaltzeko.

Besterik gabe agur, bero bat denoi eta berriro ere gogorazten dugu zuek zaretela aldizkari honen protagonistak, beraz ez beldurtu eta idatzi. ■





Ez-ohiko mozioa ilegalizazioaren aurrean

Otsailaren 9an hainbat herritar eta hautetsi bildu ziren udaletxean. Gaia EAE-ANV alderdiaren jardueraren suspentsioa izan zen. Bertan 40 itsasondotar inguru elkartu ziren herri bezala eraso honi erantzun bat emateko. Euskal Herria jasaten ari den salbuespen egoera salatzeko mozio bat aurkeztu zen eta hautetsiek aho batez onartu zuten. Ondorengoa litzateke babestu zen mozioa:

MOZIOA UDAL OSOKO BILKURARI

- 1.- Udal honek oso larritzat jotzen du espainiar estatuak EAE-ANV indar politikoaren suspentsioa erabakitzea independentzia helburu duen herri sektore zabala kriminalizatuz.
- 2.- Udal honek herritarren borondatean du oinarri, hortaz, honen aurka egiten duen lege edo erabakiei ez die inolako zilegitasunik aitortzen.
- 3.- Udal hau ez dago herriak aukeraturiko ordezkariak legez kanporatuak izatea onartzeko prest, honegatik EAE-ANV udal taldeko kideei eta erabaki honetatik eratorri daitezkeen ondorioei aurre egiteko konpromiso irmoa hartzen du.
- 4.- Udal honek proiektu politiko guztien bideragarritasuna aldarrikatzen du, independentzia barne.
- 5.- Udal honek erabaki honi aurre egiteko deituko du, lemapean, eta herritar guztiak parte hartzera deitzen ditu.
6. Onartutakoaren berri emango zaie herritar guztiei zein hedabideei.

Hori horrela, mozioarekin batera aurkezten den Neurrien Zerrenda onartzen du udal honek EAE-ANV udal taldearen eskubideak bere osotasunean bermatuak izan daitezten:

- 1.- Udal honek 2007ko maiatzaren 27an herriak emandako bozetan du oinarri eta herritarrek aukeraturiko ordezkari guztiak aitortza osoa eta eskubide guztiak bermatuak izan ditzaten neurriak hartuko ditu.
- 2.- EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsi bakoitzak dituen eskubide guztiak bermatuak izango dira.
- 3.- EAE-ANV Udal Taldeari bere izaera errespetatuko zaio.
- 4.- EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsiek udal jardueran era normalizatu batetan parte hartzeko aukera guztiak izango dutela bermatuko da.
- 5.- EAE-ANV Udal Taldeko hautetsiek udalaren ordezkari gisa bestelako erakundeetan dituzten ardurak eta karguak gorde eta era normalizatu batetan bete ahal izango dituztela bermatuko da.
- 6.- EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsiek beraien lana garatzeko dituzten udal tresna eta baliabide zein diru ekarpen guztiak bermatuko zaizkie.
- 7.- Erabaki honen ondorioz EAE-ANV Udal Taldeak edo hautetsiek jaso dezaketen eskubide urraketa edota ondorioen aurrean Udalak bere babes eta laguntza osoa eskainiko du. ■





Agenda 21 en berrikuspena: Itsasondoko herri plan berria

Aurreko alean agertu genuen moduan, Itsasondon orain arte Agenda 21aren barruan eginiko lana **ebaluatu digu** Gipuzkoako Foru Aldundiak, hau da 2005ean onartu genituen ekintza guztietatik zenbat martxan jarri diren neurtu du eta hona hemen emaitza orokorrak*:

	Ekintzak guztira	Hasi gabe	Hasita
2006	72	%51	%49
2007	72	%22	%78

Emaitza hauek ikusita laster Itsasondok Ekintza-Plan berria beharko duela ikusten dugu, izan ere, asko dira azken bi urteotan martxan jarri diren ekintzak eta honek datozen urteetarako plangintza berri bat eskatzen du.

Ekintza-Plan berria

Ekintza-Planaz ari garenean **EKINTZA KONKRETUZ** osatutako **herri-plan** batez ari gara. Udalak datozen urteotan jarraitu beharreko bidea urratsez-urrats zehaztuko du plan baten. Bertan ekintza bakoitzeko gutxienez honako puntu hauek azalduko dira:

- 1 burutu beharreko ekintzaren **deskribapena**
- 2 **noiz** burutu behar den ekintza
- 3 zenbateko **aurrekontua** izango duen
- 4 nola **finantziatu** daitekeen (dirulaguntzak, etab.)
- 5 ekintza burutzearen **ardura** zeinena den

Eta noski, plan hau zein izan behar den eztabaidatu eta adosteko **EZINBESTEKOIA izango da herritarron partehartzea**: guztion hausnarketa bat beharrezkoa da datozen urteetako bidea garatzeko. Honela, datozen hilabeteetan Itsasondon **guztionez partaidetza** eskatzen duen prozesua jarriko da martxan: talde ezberdinetan banatuta, herrian orain arte zer egin den, nola baloratzen den eta zer egin daitekeen adostuko da bertan.

Laster, Herri Batzar bat egingo dugu Herri-Planaren berritzea nola egingo den aurkezteko. Beraz, badakizue, animatu eta parte hartu datozen urteetan Itsasondon egin beharreko lanak zein izango diren erabakitzeke eztabaidetan!!! ■

* ebaluazioaren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero: 943164172/ zuberioa@laiacoop.net




La Agenda Local 21 es la herramienta que nos permitirá dar los pasos efectivos en el camino hacia el desarrollo sostenible en nuestro municipio.

El reto del desarrollo sostenible está en los núcleos urbanos, dado que éstos concentran el 80% de la población europea y, consecuentemente, el mayor consumo de recursos y generación de residuos.

Por ello, el capítulo 28 de la Agenda 21 hace un llamamiento a todas las comunidades locales para que creen su propia Agenda 21, una Agenda 21 local, que recoja los objetivos generales de la Agenda 21 y los traduzca en acciones concretas.

Las autoridades locales son el organismo adecuado para llevar a cabo la implantación de la Agenda 21 Local dado que son las más cercanas a la ciudadanía, las que mejor conocen la gestión del municipio y, en muchos casos, manejan las herramientas necesarias para solucionar los problemas locales.





Kaxintane, Itsasondoko taberna berria ireki da

Azkenean Kaxintane gure herriko taberna berriak atek ireki ditu herritarren poztasunerako eta batez ere Estixurentzako.

Tolosarra da, 28 urte ditu eta sukaldaritzako ikasketak burutu ostean hamar urtez tabernetako sukaldeak alaitu ditu. Hau izan da lehenengo aldiz elkarriketa hau egin dugunean eduki dugun lehenengo impresioa, neska gazte, alai eta xarmanta dela.

Nolatan Tolosar bat Itsasondon?

Beno, dena ez da horrela. Aitak itsasondon du familia eta, honela ikusiz ez naiz hain urrutikoa.

Aitak lanean entzun zuen herrian Udalak taberna jabe bat bilatzen zuela herri giroa bultzatzeko eta hark niri bota zidan ideia.

Hasiera batean ideia baztertu nuen baina ingurukoen bultzadarekin lokala bisitatu genuen Danirekin eta nere erantzuna badakizute jada zein den, taberna ez zen ez haundia ez txikia, tamainu perfektua nere gusturako.

Jakin duzu tabernaren izena, zer deritzozu?

Ba, originala ezta!, gainera nik uste historia duela eta nere familiarekin zerikusia, izan ere nere aitaren familia frontoi ondoan zegoen baserri batean bizi zen, orain ez dagoena, eta baserriaren izena hain zuzen ere Kaxintane zen.

Zein izango da tabernaren dinamika?

Hori nik ere jakin nahiko nuke, ja, ja... hasi arte ezin izango dut galdera erantzun baina herritarrei aurreratzen diet famili giroa topatuko duzutela eta, noski, nere sukaldaritza ere probatu ahal izango duzutela. Oraingoz aste buruetan plater konbinatu, pintxo eta bokadiloak eskeini nahi ditut eta, tabernaren martxa ikusita, eguneroko menua ere emango dugu. Por zierto, nere ahizpa ere hasiko da nerekin batera lanean.

Eta musika? eta giroa?

Denen gustoko musika jarriko dugu eta jendearen eskaerak ere entzungo dira. Hala ere euskal herriko musika jarri nahi dugu: trikitixa, betiko euskal musika eta euskal rocka.

Bestalde, asteburuetan tabernako giroa berotzeko noiz-behinka mus txapelketak antolatuko ditugu eta kuadrilen afariak ere prestatu nahi ditugu. Beraz, eskariz ere afari bereziak prestatzeko prest gara.

Itsasondoko udalaren partez ongi etorri bero bat opa dizuegu eta gure arteko sortu den erlazioa luzaroko izango dela espero dugu. ■



Ekaitz Arruti Itsasondoko Taberna berriaren izenaren irabazlea.

Sorgiñemak

Kaixo herritar guztioi eta kaixo bereziki emakumeoi!
Urte gutxi batzuk dira Itsasondoko Sorginemak Emakume Taldea elkarlanean hasi ginela. Gure helburu nagusietako bat elkar ezagutzeaz gain, gune ezberdinak amankomun izatea da.

Herri txiki eta panpox honek. Aukera paregabea eskeintzen dugu kultur arloa kalean, etxean, nahiz eskolan jorratzeko ekintza ezberdinak burutuz. Guztion esku dago Itsasondoko dinamika aberasgarriak burutzea haur, gazte, heldu eta nagusiei zuzenduta ditugun ideiei ezberdinak aurrera eramatea.

Sarri sortzen zaizkigu ideiak, baina ez ditugu konpartitzen. Horretarako gaude.

Martxoak 8 dela eta gauzatxo ezberdinak antolatu ditugu. Martxoaren 4an Autoestimari buruzko hitzaldia izan genuen Jubilatuen Egoitzan. Saioan gure burua maitatzeak duen garrantziaz hitz egin genuen. Tamalez emakumeok hutsune nabarmena dugu gure burua baloratzeko garaia. Honen inguruan lanketa ezberdinak nola burutu ditzazkegun hausnartzeko, ikastarotxo bat antolatzeke asmotan gabilta. Emango dugu honen berri, oraingoz ez dugu datu finkorik.

Martxoaren 7an, Lehen Marrazki Lehiaketa (0-6 urte bitarteko haurrentzat) eta Ipuin Lehiaketako (7-12 eta 13 urtetik aurrera) sariak banatu genituen eta ondoren herriko haurrek askari goxoaz gozatzeko aukera izan zuten.

Martxoaren 8an plazan bildu ginen, argazkia atera eta giro jatorrean abiatu ginen Arbel Aitz Elkartera bazkaltzera, Ordiziako Rondaiken musikaz gozatuz. Ondoren Jesusa Jauregiri eman genion oroigarria. A zer nolako emakume indartsua, maitagarria eta hunkigarria den azalduz. Urtero izango dugu saria nori eman.

Martxoaren 14an Donostiako Expresio Tailerrako arduraduna den Benjamín Barandalla izan genuen. Norberari eta haurrei begira heziketa sortzeko buruz herri eskolako aterpean

egin zen hitzaldian. Argi dago garrantzi handikoa dela heziketa modu naturalean eta eguneroko dinamikan modu egokian konpartituz, gizarte goxo eta lasaiago batean bizi gaitezkeela, sexismoa, arrazakeria, bortizkeria eta beste hainbat izakera negatibo alde batera utzi beharraz landuz.

Azkeneko urte hauetan, bereziki 2005-06-07-an eta aurten dagoeneko haurdun dauden emakumeak kontutan harturik, Itsasondoko herria umetxoz beterik daukagu.

Hau delaeta, piskanaka elkar ezagutzeko gogoz gabiltzanez, eskolari eskatu genion bertan dagoen aterpea. Gune hori haur txikiekin egoteko oso aproposa da eta babestua delako. Erabiltzeko aukera eman digutenez bertan elkar banatu ditzakegu gure beldur, kezka, desio eta bizitako une ezberdinak.

Ikastaro, hitzaldi, irteera zein ekitaldi ezberdinak antolatu nahi ditugu.

Deialdi berria egingo dugu bertako giltzak jasotzean, zer nolako dinamika edo erabilpena eman nahi diogun erabiltzeko.

Apirilaren 8an arratsaldean "La liga de la leche"-ko partaideak etorri ziren umeei bularra eman, eta etxetik kanpo lan egitean bular ematea uztartzeari buruzko hitzaldia ematera.

Lehen esan dugun bezalaxe, interesgarria da elkar ezagutzea eta jirabiraka ditugun pentsamendu eta ideiak konpartitzea. Horregatik errepikatu nahi dugu berriro ere gu bertan gaudela, bertakoak garela eta udaletxe gainean dagoen aretoan biltzeaz gain kalean gaudela elkarrekin gozatzeko gogoz. Gainera ez dezagun ahaztu herrian gauzatxo ezberdinak burutzeko dugun aukera aberasgarria.

Goazen denon artean Itsasondo berpiztea eta alaitzea. ■



Itsasondoko udalak I Berdintasun Plana onartu du



*Itsasondoko
I Berdintasun Plana*

Itsasondoko udalak, eragile ezberdinen parte hartzearekin I Berdintasun Plana onartu du. Azken urteotan, nahiz eta emakume eta gizonen berdintasunaren bidean urrats garrantzitsuak eman diren, hala nola emakumeen lan merkaturatze masiboa, gaur egun oraindik ere gizarteko esparru guztietan emakumeek bazterketa pairatzen dute. Bazterketa egoera horien arrazoia patriarkatuak inposatutako botere harreman hierarkikoak dira, zeintzuen bitartez, emakume eta gizonen zeregin, funtzio sozial, estereotipo, portaera, e.a ezberdinak inposatzen zaizkien, beti ere gizonen boterea esleitzen.

Beraz, nahiz eta aldaketak ematen ari diren, gaur egun oraindik ere emakume eta gizonen harremanak ez dira berdintasunean oinarritzen. Berdintasun printzipioa eta sexuagatiko bereizkeriarik eza nazioarteko zein beste mailetako administrazioen lege testutan dago jasoa, baina ez da nahikoa izan. Horregatik Itsasondoko Udalak berdintasunaren alde bere konpromisoa betetz, Berdintasun Plan bat egitea erabaki zuen. Berdintasun Planaren helburua, bizitzako eremu ezberdinetan Itsasondoko emakume eta gizonen berdintasuna erreala eta benetakoa izatea, eta gaur egun ematen diren desberdintasun egoerak gainditzea. Helburu hori lortzeko neurriak barneratzen ditu Berdintasun Planak eta beraz Itsasondoko emakume eta gizonentzat oso tresna baliagarria izango da. Epe luzerako ikuspegia du, aldaketa hauek ez baitira egun batetik bestera lortzen.

Duela zazpi bat hilabete berdintasun teknikari bat kontratatu zuen udalak Plan hau diseinatzeko. Hasieratik ordea Udalak berak herritarren parte hartzea bideratzeko gune baten beharra azpimarratu zuen eta Itsasondoko Berdintasunaren aldeko Mahaia martxan jarri zen. Bertan emakume taldeko kideak, jubilatutako elkarteak, haur eskolakoak, sindikatuak, ordezkariak, guraso elkarteak, eskolakoak, e.a. hartu dute parte, eta aurrerantzean ere parte hartze hori handitzeko ahaleginetan jarraituko da. Mahaiak diagnostikoaren diseinutik hartu du parte, prozesuaren hasieratik alegia. Behin Berdintasun Plana onartuta, Mahai berari egokituko zaio planaren jarraipena egin eta martxan jartzen diren neurriak ebaluatzea. Plana Itsasondoko biztanleentzat egin den neurian, udalak biztanleek bere egitea lortu nahi du, hau da herriak herriarentzat egina. ■



Aitor Esnaola Aht-ren kaltetuetako lur jabe bat



Aitor Esnaolarekin kalakan izan gara Itsasondo2.0 ko kideak AHT-ak eragindako desjabetze prozesuaren berri izan nahian.

Joan den alean aipatu genuen nola AHTak gure lurretan izugarritzko inpaktua izango duela bai ingurugiroari begira, baita pertsonen lur jabetzari dagokionez ere. Eusko Jaurlaritzak desjabetze prozesua hasi behar zuela komentatu genuen eta Legorretako mutil honekin topatu gara egoera ustel horri buruz bere ausnarketak jakiteko.

NOIZ IZAN DUZU DESJABETZE PROZESUAREN BERRI?

Itsasondo, Legorreta eta Ordiziako lurjabeek lehenengo berria duela hiru aste izan genuen, gutun bat iritsi zitzaigun Ordiziako udaletik bertara hurrengo egunean gerturatzeko bilera bat izateko asmotan. Nere lehenengo inpresioa harri-durazkoa izan zen, non eta Ordiziko udaletxean, hasiera batean AHT elkarlanaren bilera bat izango zelakoan nengoen. Aspaldi genekien gure lurretan arazoak izango genituela AHT-aren ibilbidea ezagutzen baikenuen. Baina, Eusko Jaurlaritzak desjabetze prozesua hastera zijoala esan zuenetik gure lehen harremana duela hiru aste izan da.

ZER IRUDITU ZAIZU DESJABETUEI EMANDAKO INFORMAZIOA?

Nik inposaturiko egoera hau salatu nahi dut, baita Ordiziko udalak beraiei eskainitako babesa ere. Eusko Jaurlaritzak, desjabetu prozesua aurrera eramateko, enpresa pribatu bat erabili du eta presioa bide dela guregan jazarri dute gure baiezkora lehenbailen lortzeko. Aipatu behar dut, lehen harremana

izatera iritsi garenerako prozedura jada bukatutzat eman dutela. Planoak mahai gainean zituztela inongo beste informaziorik eman gabe gure, lurretako zer zati desjabetu behar diguten inposatu dute. Aipatzekoa da halaber, lapurtutako lurrez gain, beste lur eremu batzuen behinbeiniko okupazioa bideratuko dutela AHT-aren azpiegitura ahalbidetzeko.

BERAIEKIN ZUZENEAN ELKARTU ZARA

Ez, Jaurlaritzak jarritako espropiazio enpresa pribatu batekin elkartu nahiz.

ARGITU ZEIN NOLAKO INFORMAZIOA EMAN DIZUTEN

Informazioa oso kaxkarra izan da, baina, azpimarratzekoa dena bakarka elkarrizketatu izana da, zenbait lurjabe gerturatu baginen ere, denak gela batean bildu ordez, banaka pasa ginen beraien aurrean, horrek suposatu dezakeen beldurrarekin. Ondo dakite beraiek ze jende motarekin negoziatu behar duten, eta horregatik landa eremuan lan egiten duten pertsonekin honela jokatzekak lana errazten die. Hotza da nik aipatuko nukeen hitza. Bi bide eskaini dizkigute: alde batetik, beraien proposamena onartzea edo eta ez onartzea, eta honek estatuko espropiazio enpresa batek prozesua eramatea ekarriko luke. Honen ondorioa, lurraren gaineko balioaren %40 gutxiago lortzea da. Bi bide horietako bat onartuezkero, lurjabeak bere kargu hartu beharko luke kalifikazio prozesua.

NOLA SENTITZEN ZARA HONELAKO PROZESUAREN AURREAN?

Sentsazioa arraroa da, ezintasuna sentitzen dut barruan. Oraindik besteak bezala harrituta gaude jasotako berriarekin. Baina batez ere, eman diguten tratuekin. Alde batera utziaz zertara joan ginen nik eztabaida sortu nahi izan nuen beraiei burua argitzeko eta bi edo hiru egia kontatzeko. Baina alferrikakoak izan ziren ahaleginak, ez baidute onartzen arazo honek duen alderdi soziala non herriak hitz egin behar duen libreki. Ni eztabaida sozial baten alde nago, jendeak datu guztiak aurrean dituela hartutako erabaki askearen alde, non azken finean herriak erreferendu baten bidez erabakitzen duen zer egingo den AHT ren inguruan.

Eskerrik asko Aitor zure denbora gurekin konpartitzeagatik eta espero dugu berririk balego gurekin harremanetan jarriko zarela guk herrian plazaratzeko. ■



Dice Lakua que entre Bilbo, Gasteiz y Donostia se producen 47.000 desplazamientos diarios. Claro. Y por el mar corren las liebres. Sin embargo, la realidad es que entre esas tres capitales los desplazamientos sólo llegan a 21.423. Quizá con la alta velocidad se vean los paisajes más borrosos, y lo mismo las cifras.

«La energía procederá de combustibles no fósiles», afirman. ¿Funcionará este maravilloso TAV vasco con energía solar? ¿Quizá con la que se obtenga de las olas en Mutriku? En fin. Al parecer no es combustible fósil el gas utilizado en las centrales térmicas de ciclo combinado, principal fuente energética en la planificación gubernamental.

«El ruido que produce el TAV es sensiblemente inferior al que genera cualquier carretera». Según los indicadores del Gobierno de Lakua, los impactos acústicos superan los 55 dB (A) en las principales carreteras. En cambio, es sabido que el TAV genera ruidos de hasta 100 dB (A). «La mayor agresión que podemos hacer al medio ambiente es no construir la Y», se lanzó cuesta abajo la consejera de Transportes. Y yo me encontré con un ciruelo cargadito de avellanas.

Ikastola eta guraso elkarteak

BERTSOAK

Gaia: Maitasuna
 Neurria: Zortziko nagusia
 Doinuak: Loreak udan
 Pello Joxepe
 ...

Zuk ez dakizu ze pozik nintzen
 aurreko urteko Pazkon.
 Ia egunero nik egiten dut
 amets asko zurekiko.
 Aurtan ere berriz zu ikusiko
 zaitut lehengo tokin kanpon.
 Zure bihotza ene maitea
 maitagarria da asko.

— Ainara —

Zu zara nire kuttun maitea
 eta ez zaitut utziko.
 Zergatik negar, zure ondoan
 betirako naiz biziko.
 Nire bizia galtzen denean
 zuregan dut nik jarriko,
 baina oraindik ez naiz joango
 nadin zurekin betiko.

— Alexi —

Olatu artean galduta dagon
 ontzia duzu salbatu.
 A ze sortea nik izan dudana
 Ordizin zu ezagutuz!
 Zuri eman nizun guzti-guztia
 zukin naizelako ausartu.
 Zu zara nere bizitzan jabe
 ez nazazu hondoratu.

— Josu —

Zu ikustean nire bihotza
 pozik doakit dantzara.
 Zurekin noa seguruena
 Ezkio ta Donostira.
 Hurrena ikusten zaitudanean
 esango dizut gustura:
 Zu, maite, nire bihotz osoko
 maitale jatorra zara.

— Ione —

Ainara, nire lagunik onena,
 zu zaitut inor baino maiteago.
 Zatoz nirekin, azukre koxkortxo!
 Etor zaiten nirekin, poxpolintxo!
 Goazen gure sentimentuetaz hitz egitera
 Zatoz, zatoz lasai, kalimotxo!
 Zu etorri ta ikusiko duzu
 nolako sorpresa maitetxo.
 Etorri, etorri nire Ainara
 zu zara eta nire lastana.

— Ione —

Zu zara nire bihotza.
 Dantzara atera zintudanean
 bihotza urdurik neukan.
 Ez nekien zer egin;
 orduan bihotz barrenetik
 musu ederra atera zitzaidan,
 eta nire bihotza
 lasaitu eta maitemindu zen.

— Alexi —

Zugandik urruntzean
 iluntzen zait bihotza.
 Zurekin nagoenean berriz,
 berotzen zait lehen zegoena hotza.
 Ez nazazu bakarrik utzi
 nire azukre koxkorra.
 Ez baitut indarrik zu gabe
 pasatzeko negu hotza.
 Bizitza zozketa bat da:
 batzuetan ona, eta besteetan txarra.
 Zu ezagutzea
 izan zen niretzat kristoren poza
 zin egiten dizut
 zu zarela nire bihotzeko maite bakarra.

— Josu —

Nire Pello maitea :
 Zu bai polita !
 Nik nahi baitzaitut niretzat.
 Zu joan arren,
 Nire bihotza ez da gelditu
 Eta nik nahi bai,
 zurekin ezkondu.
 Zu bai nire maitea!
 Zu bai nire pitxonzittoa !
 Eta nire bihotza
 ez da geldituko
 zurekin ezkondu arte.
 Muxus!
 Zure pitxonzittoa.

— Ainara —





Itsasondoko jubilatuta zahar etxeko taldea

Pozez aipatu behar dugu talde berri bat elkartu zaigula gure aldizkariari, oraindik beraien lana zehazteko dute bainan bigarren ale honetan hasiera bat eman behar zioten eta artikulotxo hauek bidali dizkigute beraien garaiko historia eta kontairak idazteko. Jubilatuta zahar etxeko taldeaz hitz egiten ari gara, beraiek izango dira herriaren memoria historikoa gogra ekarriko dizkigutenak.

EURIE

Zenbat hitz bide ematen digan euri kontuak. Asko edo gutxi egin duela, legortea daukagula, atertko hal du noizbait eta abar...

Asko edo gutxi izan, jakin dezagun, gure errian, Itsasondon, Beitiko soroan ain zuzen, zenbat euri egin duen azken amabi urteetan. Kopurua, oi dan bezela, zenbat litro metro karratuko jaso diran adierazten du.

Amabi urte hauetan euri geiena egindako eguna, 2007 ko martxoaren 7 izan zan, 67 litroekin. Il berean, 19-an, 65 litro bota zitun eta urrengo egunean, 54, dana elurretan- 50 litrotik gora 1998 ko urriaren 8-an 59 egin da eta bat gutxiago 2002-ko abenduaren 3-an, urte berean. Baita ere 1996, 1997, 2000 eta 2005-ko azaroan eta 2007-an abuztuko 21 ean eta agoran 17an iritis edo gañeztu 50 litroak.

Egun euritsu geiena izandako illa, 1998 ko apirila 21 egunkin. Amabost egunetik gorakoak asko eta gutxienekoak, 1997 ko martxoa eta 2003 ko uztaila, bakoitza bi egunekin bakarrik.



EURI KONTUKIN JARRAITUZ

Toki batetik bestera, euri kopurua, oso aldakorra da. Esate baterako, Donostin, 1997 ko ekainaren leen egunean 251 litro neurtu zituzten eta gure errian 38 bakarrik. Egun berean 131 litro jaso zituzten Andoainen eta Zarautzen 81. Urte osoan, Donostin 1733 litro jaso zituzten eta oietatik 837 litro 14 egunetan bakarrik. Nolako zaparradak jasan bear zituzten egun oietan.

Gure errian, azken urteetan, ez degu olakorik ezagutu baiñañ 60 urtetik gora dauzkagunoi gogorazten digu 1953 ko urriko 13, 14, eta 15 eko jasak. Errekaren goiena azken egun orretan, goizeko zortziretan izan zan. Garai artako plaza neta kamiñoan iru metroko altura artu zuan eta benetan bildurgarria izan zan. Errian ez gendun ondasun kalte besterik jaso, bañan, Ataunen, bi eraman zitun ugoaldeak, Jose Etxeberria eta Tomas Arratibel. Iraetan berriz, autobuzen zeren 17 bidaiari eta 2 gazte laguntzera joan zirena, itto ziren eta Bidasoa errekan ere beste bat.

Lenagoko arira biurtuz, emen 1259 litro urten, bataz beste, egin badigu, Donostin 1476 jaso dituzte.

Danok dakigu gure alderdin euri asko bear regula eta izaten degu, bada euri geiena Euskalerrin jasotzen da, Artikutzan ain zuzen. Lur bazter au, naiz Nafarroko alden egon Donostiko Udalak du jabetasuna eta bertatik du uraren ornidura. Españin ostagin tresnak 2300 tokitan daude eta 1931 ko urteti euri geiena jasotzen duena bera da. Urtean, bataz beste, 2654 litro jasotzen ditu. Bertan noski, aldaketak izaten dira, eta orrela, 1981 ko ilbeltzen 688 litro jaso ziran eta urte eurituena 1966en 3398 litrokin izan zan. Gero, eurik geiena jasotzen dutenak, Vicuña eta Villarbacu, Lugoko probintzian, 2369 eta 2346 litrokin dira eta jarraian, gezurra badirudi ere, Cadizen Grazalena erri edo mendian, 2093 litrokin. ■

Joxe Luis Aizpuru Iturriotz

Oharra: Itsasondoko zeaztasunan bertakoak dira eta gañontzekoak idatzitak jasotakoak.

Auzolana

AUZOLANA lehenengo aldiz entzun genuenetik gure herrian, dagoeneko badi-ra 6 hilabete.

AUZOLANA aurrera eraman ahal izateko, pauso ezberdinak eman dira eta pertsona askoren laguntza eta parte hartzea izan dugu.

Proiektu hau nondik eta zergatik eman zen jakiteko, aurreko urteko ekainera jo beharko genuke.

Eskolak bidalitako eskari bat jaso zen udaletxean, HAURZAINZTA baten beharra zegoela adierazten zuten, eta dagoeneko bi gurasoen eskaera bazegoela, hori aurrera eramateko.

Udaletxeak, eskolak eta gurasoak bezala garrantzitsua ikusten zuen zerbitzu hau martxan jartzea.

Hau aurrera eramateko diru kopuru bat behar zen; hortarako gurasoak beraien bideak aurkitu zituzten HAURZAINZTAREN kostu erdia jartzeko, bestetik udaletxeak AUZOLANA planteatu zuen, zerbitzuari aurre egiteko.

Momentu horretan hasi zen proiektua, eskolan AUZOLANAREN lanketa egin dute, haurrei adieraziz zer den, zergatik egiten zen, nola egiten zen...

Bestetik interesatuak geunden hiru agenteak (gurasoak, eskola eta udaletxea) bilerak egiten ditugu plangintza egoki bat antolatzeke honen inguruan (nola landu eskolan gaia, zerri eman lehentasuna auzolana aurrera emateko garaian, noiz eta nola...) ondoren bakoitzak bere taldean hitz egiten dugu, zerbait berria edo egokiagoa ikusten bada hurrengo bileran gure artean berplanteatuz.

Azpimarkatu nahi dugu eskolan egindako lana, gure haurrei AUZOLANA zer esan nahi duen eta nora eraman gaitzaken erakutsi baitie; nahi duten herria sortzeko bide ezberdinak jorratu daitezkeela eta dena ez dela diruz konpontzen. Ilusioak eta gauzak hobetzeko asmoak errealitateak aldatu ditzaketela. Hori gaur egungo gizartean eta gure herrian posible dela erakusten badiugu, AUZOLANAREN helburu nagusia lortuko dugu.

Horregatik gurasoei egin duten lana eskertu nahi diegu udaletxetik, gai izan direlako beraien artean adostasunetara iristeko, konpromezu hori hartzeko eta bestetik haurrei beste alternatiba batzuk erakusteko, benetan ZORIONAK.

Bestetik mila esker ere Jostun Taldeko Pili, Belen, Ana Mari eta Julitari, eskolara joan zirela beraien garaian egin zuten AUZOLANAREN berri ematea, haurrek egiten zituzten galdera guztiei erantzuten. Mila esker ere duzue.

Eta bestetik udaletxetik, eskolatik eta guraso elkartetik, HERRITAR GUZTIOI AUZOLANAN parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, elkar ezagutzeko aukera polita izateaz gain, zuen parte hartzea ezinbestekoa ikusten dugulako.

Lehenengo AUZOLANA apirilean emango da, zertan oinarrituko den eta noiz izango den zirkular baten bidez adieraziko dizuegu.

AGUR BERO BAT.

Udaletxeko Kultur Zinegotziak

Lehen esan bezala mila esker proiektu honetan parte hartzen ari zareten guztioi, eta ongi etorri hemendik aurrera parte hartuko duzuen guztioi. ■



Itsasondoko kultur ekintzak



Josune, ipuin honetako protagonista da. 18 urterekin hasi zen lanean eta orain 22 ditu, hiru ume, senarra eta bulego batean lan egiten du. Senarra kamioilaria da eta kanpoan egoten da ia beti lanean Josuneren bulegoa berriz etxe parean dago. Josune esnatu, umeei gosaria jarri, eskolara bidali eta lanera joaten da neka neka eginda.

Bulegoburu zaharra jubilatuta eta berria etorri zen. Honek josuneri diru gutxiago ematen zion eta gure emakumea bulegoburuarengana joan eta lau hitz ondo esanak zizkion:

- Aizu "señorito" zein uste duzu zarela emakumezkoei diru gutxiago emateko?

- Bada bulegoburua. Nik agintzen dut hemen eta nahi dudana ordainduko dizuet emakumezkoei. Eta ez niri agindurik eman empresa honetatik bidaltzea nahi ez baduzu!

- Lasai, lasai, astapetro zikin alena. Ni bakarrik bidaltzen naiz!!! Matxista!!

Josune lanik gabe geratu zen baina ez duintasunik gabe. Ondoren etxera itzuli eta senarra etxean zegoela ohartzean segituan joan zen beregana desgrazia kontatzera.

- Lasai maitia ez atsekabetu beti izango dugu nire soldata eta.

Hurrengo egunean Josunek salaketa bat jarri zion bulegoburuari.

- Horrela askosez hobeto sentitzen naiz. Eta ea nire hurrengo lanean zorte hobea izaten duan.

Hortik egun batzuetara, ordea, bere ex-bulegoburuaren gutun bat jaso zuen.

- Elkartu zaitez nirekin gaur arratsaldeko 4 etan plaza aurreko tabernan.

- Zer nahi oteko du orain honek? Ez al nion esan ez niregana hurbiltzeko?

Josune jakinminez joan zen tabernara eta Joxe zegoen lekuan ezarri zen.

- Josune lagun idazu mesedez, emakumezko guztiek zure pau-soak jarraitu eta dimititu dute. Lagun idazu berriz emakumezkoak ekartzen. Gizonek ez baitute lan askorik egiten eta ...

- Nola ez. Baina kondizio batekin... beno hemen gaudela aprobetxatuz bi.

- Bai bai. Bota nahi duzuna.

- Lehenengoa zera da... matxismoa ez existitzea empresan, hau da, neska eta mutil guztiei berdina tratatzea. Eta bigarrena soldata igotzea denei.

- Bueno ba... ongi da.

Hurrengo egunean Josune lanean hasi zen beti bezela eta ez da inoiz herri horretan matxismo kasurik gehiago egon.

ljitu eguna



Emakume eguneko bazkaria



Inauteriak Itsasondon



Goierriko Zirkuito Kulturala



Albisteak



Apirila

- 1 Auzolana 5-6 asteburuan .zehazteko zein egunetan. Ondoren hamaiketakoa.(eskola ,udaletxea eta guraso elkarte).
- 2 Intelignecia emocional” hitzaldia
- 3 Antzerkia heldu eta haur “Euskararen manifestoa” eta txikiak “ilargiaren antzerkia”.apirilak 18an.
- 4 Hitzaldia latinoamerika aberriaren inguruan.
- 5 Maratoia.tortila lehiaketa.(agian 19 an).
- 6 Kantu afariren bat.agian zehazteko.
- 7 Goierriko Eskola txikien festa.27 an.
– EKITALDI EZBERDINAK.
GOIZALDEAN:
– Herri kirolak haurrentzat.
– Joku ezberdinak , txirrindulaz...
– Erlezaintzako en erakusketa.
– Mehategi inguruan argazki eta informazio bilketa bat egin duen Javier Aranok erakusketa bat antolatu du.
– Ondoren BAZKARIA, musikarekin.
ARRATSALDEAN:
– Pailazoak eta graffiti mural baten margoketa.

Maiatza

Herri Urrats 2.igandean izango da eta Itsasondoko herritar batzuk joango gara.

Ekaina

- 1 Ekainak 3an San Juan sua eta sardinak. Ekainak 23. GURASOAK.
- 2 Ekainak 23, San Juan sua eta dantza. BERRIAK.
- 3 Ekainak 14, eskolako festa. ESKOLA.
- 4 Ekainak 23, malabaristak. GAZTEAK.
Ekainak 23tik uztaileira uda kanpaina. ESKOLA, GURASOAK ETA UDALETXEA

Errezeta



Eusko Label Produktuak: Errezetak Ezti-Izozkia Eta Intxaur Garrapinatua

Elikagaiak:

EZTI-IZOZKIA - litro bat esne - 10 cl esnegain likido - 220 g ezti - 10 gorringo - 50 g azukre inbertitu INTXAURRAK - 125 g intxaur - 250 g ur - 250 g azukre.

Elaborazioa:

1. EZTI-IZOZKIA
2. Esnea eta esnegaina irakin, gainerakoa nahasten den bitartean.
3. Hori guztia krema ingelesa balitz bezala prestatu, eta ego-saldia amaitzeko, ur eta izotzezko maria bainu batean sartu.
4. INTXAURRAK
5. Osagai horiek eltze batean su bizian berotu eta gelditu gabe nahasi. Azukrea nahiko urtua dagoenean, intxaurrek sutatik kendu eta atzera sutan jarriko ditugu berriz, kristal itxurako kolorea har dezaten.
6. Azkenik, silpat baten barruan sartu eta zurezko bi koilararekin, intxaurrek bereizi egingo ditugu aske gera daitezen.

Esaera zahar

"MUSU TRUKE INORK
EZ DU EZER EMATEN"

"MUNDUAN BI PARTIDU
DARE, DIRUE DAUKENAK
ETA DIRUE EUKI NAI
DUTENAK"

Sudoku

	5				4			
3				7		8		
4		7						
			6	5	3			7
							6	2
	6	4	7	2				
		9		3	5		8	
							4	3
6	2	3	4	8	7	5		9

Lehiaketa

Hemen duzue berriro ere lehiaketa mundiala!

Ea oraingoan asmatzen dezuten gure disenatzaileak argazkian sartu duen akatsa.

Gure helbidea: Itsasondo2.0@itsasondo.net

0. zenbakiko irabazleak: M. Garmendia, Alberto eta Ruth Becerril. Hirurok puntu bana lortu dezute.

